

2025

EMANTZIPAZIOAREN GILTZAK EUSKADIN



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ONGIZATE, GAZTERIA ETA
ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA

DEPARTAMENTO DE BIENESTAR,
JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO



GAZTEEN EUSKAL
BEHATOKIA OBSERVATORIO VASCO
DE LA JUVENTUD

EMANTZIPAZIOAREN GILTZAK EUSKADIN

—
2025



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ONGIZATE, GAZTERIA ETA
ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA
DEPARTAMENTO DE BIENESTAR,
JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO



GAZTEEN EUSKAL
BEHATOKIA OBSERVATORIO VASCO
DE LA JUVENTUD

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2025

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke: <https://www.katalogoak.euskadi.eus/katalogobateratua>

Argitaraldia:

1.a, 2025eko urria

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Ongizatea, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Saila

Internet:

www.euskadi.eus

Argitaratzailea:

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Egilea:

Gazteen Euskal Behatokia

Itzulpena:

Gazteen Euskal Behatokia

Diseinua eta maketazioa:

Gurenet Teknologia S.L.

ISSN: Eskatze-prozesuan

Oharra: argitalpen honen gaztelaniako bertsioa ere eskuragarri dago



Dokumentu honen edukiak, oraingo edizioan, litzentzia honetan argitaratu dira: Aitortu – Ez merkataritzarako – Lan eratorririk gabe 4.0 Unported (http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/deed.es_ES)

Edukia

Egoeraren balantzea.....	6
Emantzipazioaren adierazleak Euskadin.....	16
Biztanleria gaztea.....	19
1. arloa. Emantzipatutako gazteak	22
2. arloa. Laneratzea	29
3. arloa. Etxebizitza-merkatua	43
4. arloa. Etxebizitza-premia	48
5. arloa. Etxebizitza librea eskuratzeko kostu teorikoa	53
6. arloa. Aztarna soziala	63
Eranskin metodologikoa	70

Egoeraren balantzea



Txosten hau datu estatistikoetatik haratago doa, eta gazteen emantzipazioan eragiten duten egiturazko baldintzen inguruko hausnarketa planteatzen du. Etxebizitza eskuratzeko erraztasunak ematea, emantzipazioa babesteko politikak indartzea, enpleguaren egonkortasuna sustatzea eta lan-baldintzak hobetzea ez dira helburu desiragarriak soilik, belaunaldi berrien etorkizuna bermatzeko funtsezko elementuak ere badira. Euskadiko gazteen emantzipazioak erronka esanguratsuei egin behar die aurre, baina datuak zorrotz ulertuz gero, irtenbide eraginkorretarantz aurrera egin daiteke.

EMANTZIPATUTAKO GAZTEAK

Gazteen emantzipazioak gazteek familia-etxea utzi eta beren kabuz bizitzeko prozesuari egiten dio erreferentzia. Prozesu horrek etxebizitza bat alokatzea edo erostea, eta norbere erantzukizun ekonomikoak eta etxekoak bere gain hartzea ekarri ohi du.

Euskadin, Espainian eta Europa hegoaldeko gainerako herrialdeetan bezala, emantzipazio-tasak behera egin du azken urteetan. Zifra hori % 32,3koa da 18 eta 34 urte bitarteko gazteentzat 2024an. Euskadiko emantzipaziorako batez besteko adina 29,8 urtekoa da, Europako batezbestekoa (26,2 urte) baino 3,6 puntu handiagoa. Euskal gazteria emantzipaziorako adin ideala iruditzen zaiona baino 5 urte beranduago emantzipatzen da.

30 urtetik beherako gazteen artean, alokairua da etxebizitzaren edukitze-erregimen ohikoena, eta 30 eta 34 urte bitartekoen artean aldiz, jabetza. Emantzipatuta dauden 18 eta 34 urte bitarteko gehienak bikotekidearekin bizi dira (% 60,8), gehienbat emakumeak (% 63,1) eta 30 eta 34 urte bitartekoak (% 66,7). Etxebizitza beste pertsona batzuekin partekatzea da emantzipatutako gazteen artean bigarren bizikidetza-modu ohikoena, % 23,1; atzerriko nazionalitatea dutenen artean, ehuneko hori % 41,4ra igotzen da. Emantzipatuta dauden 18 eta 34 urte bitarteko gazteen % 16,1 soilik bizi da bakarrik.

Euskal gazteek emantzipatzeko nahia dute; emantzipatuta ez dauden 25 eta 29 urte bitarteko gazteen % 81,5ek etxetik irten nahi luke, baina hainbat faktorek zailtzen dute nahi hori gauzatzea. Besteak beste, ikasketen luzatzeak, lan baldintzak eta etxebizitzaren kostu handiak.

Txosten honek faktore horiei eta horien ondorioei buruzko adierazle garrantzitsuenen berri ematen du.

2024an, 18 eta 34 urte bitarteko hiru pertsonatik bat (% 32,3) emantzipatuta dago.

Emantzipaziorako batez besteko adina 29,8 urtekoa da Euskadin.

Emantzipatutako gazteen % 16,1 soilik bizi da bakarrik. Gehienak (% 60,8) bikotekidearekin bizi dira.

Emantzipazioa atzeratzeko arrazoien artean ikasketen luzatzea, lan-baldintzak eta etxebizitzaren kostu handiak daude.

LANERATZEA

Ikasketak luzatzeko joerak lan-merkatuan bete-betean sartzea atzeratzen du, eta horrek, aldi berean, emantzipazioa atzeratzen du. Azken hamarkadan, goi-mailako hezkuntzan titulua dutenen tasa hamar puntu baino gehiago hazi da, eta, horren ondorioz, Euskadi tasa altuena duten Europako eskualdeen artean dago. 2024an, 25 eta 34 urte bitarteko pertsonen % 67,8k ikasketa tertziarioak ditu, unibertsitate-, gradu-, master- edo doktoretza-ikasketak eta goi-mailako heziketa-zikloak barne hartzen dituenak; zifra hori EBko batez bestekoaren (% 44,2) oso gaineratik dago.


2015etik okupazio-tasa suspertu egin da, eta gazteen artean langabezia-tasa asko jaitsi da; era honetan, datuak EBko batez bestekoarekin parekatu egin dira. 2024ko lau hiruhilekoetako batez bestekoak urteko % 10,9ko langabezia-tasa ematen du 16 eta 29 urte bitarteko gazteentzat, EBko batez bestekoaren azpitik; urte hartan, % 11,4koa izan zen.

2024an, 16 eta 29 urte bitarteko gazteen % 45,8 okupatuta dago; tasa hori EBko batez bestekoaren azpitik dago, % 49,6koa baita. 25 urtetik gora, okupazio-tasa handiagoa da: % 78,3, 25 eta 29 urte bitartean; eta % 78,1, 30 eta 34 urte bitartean.

Lanean dauden hamar gaztetik zortzik zerbitzuen sektorean egiten dute lan. Zerbitzuen sektoreak 2018tik hona pisua irabazi du poliki-poliki, industriaren kontura; sektore horrek, 2024an, 16 eta 29 urte bitarteko okupatuen % 16,3ri eta 30 eta 34 urte bitartekoen % 19,0ri ematen die lana. Eraikuntza eta, batez ere, lehen sektorea (nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza) oso ehuneko baxuetan mantentzen dira.

**25 eta 34 urte
bitartekoen goi-mailako
titulazio-tasa EBko
batez bestekoa baino
20 puntu altuagoa da.**

**Okupazioak gora egin
du, eta langabezia-tasa
EBko batez bestekoaren
azpitik jaitsi da.**



16 eta 29 urte bitarteko gazte okupatuen herenak lanaldi partzialean egiten du lan. Proportzio hori handiagoa da 16 eta 24 urte bitartekoen artean (% 47,1) eta emakumeen artean (% 39,5). 25 urtetik aurrera, lanaldi partzialeko enplegu-tasa murriztu egiten da, eta % 22,4koa da 25 eta 29 urte bitartean. 30 eta 34 urte bitartean, lanaldi partzialeko enplegu-tasa Euskadiko biztanleria okupatu osoaren antzekoa da: % 16,0 eta % 17,0, hurrenez hurren.

Lanaldi partzialeko enplegu-tasa egonkor mantendu da azken urteetan, eta 2024an EBko batezbestekoa (% 23,8) baino ehuneko 8,4 puntu gainetik dago.

Behin-behinekotasuna nabarmen murriztu da 2022an lan-erreforma indarrean sartu zenetik. Hala ere, 16 eta 29 urte bitarteko soldatapeko gazteen % 40ri eragiten dio, eta, batez ere, 25 urte baino gutxiago dituztenei, horien artean % 50era iristen baita, eta zertxobait gehiago emakumeei (% 44,9) gizonei baino (% 35,4). EBko batez besteko behin-behinekotasunaren ehuneko % 33,6koa da 15 eta 29 urte bitarteko soldatapeko gazteentzat, Euskadikoa baino 6,4 puntu baxuagoa.

Behin-behinekotasuna jaitsi egin da 30 eta 34 urte bitartekoen artean (% 26,1), baina oraindik Euskadiko soldatapeko biztanleria osoaren batez bestekotik (% 19,4) urrun dago.

18 eta 34 urte bitarteko soldatapeko gazteen batez besteko hileko soldata garbia, aparteko ordainsari hainbanatuak barne, zertxobait hazi da 2023ko datuekin alderatuta, eta 1.564 eurora iritsi da. Emakumeek, batez beste, gizonek baino 179 euro gutxiago kobratzen dute. 18 eta 29 urte bitartekoen artean, batez besteko soldata 1.381 eurokoa da.

Lana bilatzeko edo hari eusteko itxaropenek eta konfiantzak eragin handia dute gazteen etorkizuneko proiektuetan.

Lanean ari diren gazteen herenak lanaldi partzialean egiten du lan, EBko batez bestekoaren zortzi puntu gainetik.

Behin-behinekotasuna % 40koa da Euskadiko soldatapeko gazteen artean, eta % 33,6koa, batez beste, EBn.

18 eta 34 urte bitarteko pertsonen batez besteko soldata garbia 1.564 eurokoa da, eta 18 eta 29 urte bitarteko gazteena, 1.381 eurokoa.



2024aren amaieran, gazte okupatuak % 41ek uste du 2025ean haien lan-baldintzek okerrera egin dezaketela edo enplegua gal dezaketela. Ehuneko hori aurreko urtekoa baino bi puntu handiagoa bada ere, 2020ko emaitzatik urrun dago, orduan % 48koa baitzen, eta horrek adierazten du lan-merkatuaren egoeraren pertzepzioak nolabaiteko hobekuntza izan duela.

Bestalde, langabezian dauden gazteak oso baikorrak dira 2025ean lana aurkitzeko aukerei dagokienean; % 70ek uste du oso edo nahiko gertagarria dela. Datu hori 2019ko emaitzara iristen ez bada ere (% 92), susperraldi ekonomikoa agerikoa zenean, hobekuntza handia adierazten du, pandemiak oso eragin handia izan duen 2020ko (% 64) eta 2021eko (% 62) datuekin alderatuta. Baikortasun horrek erakusten du gero eta konfiantza handiagoa dagoela lan-merkatuaren susperraldian eta etorkizuneko aukeretan.

Enplegu-aukerekiko konfiantza horrek, nahiaz kontra etorkizunean atzerrira joan beharko dutenaren aurreikuspena oso baxu mantentzen du. Gazteen % 10ek soilik uste du desiratu gabe atzerrira joan beharko duela lan egitera etorkizunean.

Lanbide Heziketako eta unibertsitateko ikasketen ondorengo laneratze-tasek gazteentzako enplegu-aukeren hobekuntza berresten dute. 2024an, urtebete lehenago Lanbide Heziketako ikasketak amaitu zituzten pertsonen % 85 okupatuta zeuden, eta ehuneko hori % 91koa zen unibertsitate-ikasketak hiru urte lehenago amaitu zituztenen artean. Bi kasuetan, ehunekoak azken hamarkadan izandako maila altuenen artean daude.

Adierazle batzuek hobera egin badute ere, hala nola okupazioak, behin-behinekotasunak edo batez besteko soldatak, gazte gehienek ez dute enplegurik, eta enplegua dutenek ere beti ezin diete aurre egin etxebizitza propioaren eta bizitza independentearen kostuei.

Lan egiten ez dutenen artean enplegu espektatibak hobetu egin dira, nahiz eta 10 langiletik 4k uste duten haien lan-baldintzek okerrera egin dezaketela edo enplegua gal dezaketela.

Unibertsitateko edo Lanbide Heziketako ikasketak amaitzen dituztenen lan-munduratzeari oso altua da.



ETXEBIZITZA-MERKATUA

Euskadiko batez besteko alokairu-errenta, Eusko Jaurlaritzan gordailututako alokairu-fidantzen batezbestekoetan oinarritua, hazten ari da urtetik urtera, eta 2024an 819 eurokoa izan da Euskadi osoan. Arabak errenta baxuagoak ditu, 747 euro batez beste, Bizkaiak 815 euroko batez besteko errenta du, eta Gipuzkoak ditu alokairu-errentarik altuenak, 854 euro batez beste.

Alokairuen prezioak gora egin du.

Hileko batez besteko hipoteka-kuota igo egin da, eta 769 eurokoa izan da 2024an. Batez besteko hipoteka-kuota hori alokairuaren batez besteko errenta baino baxuagoa da. Hala ere, kontuan izan behar da batez besteko kuota hori sinatutako hipoteka-maileguen guztizkoan oinarrituta kalkulatzen dela, erosleen adina eta mailegua eskatu den etxebizitzaren balio osoaren gaineko ehunekoa edozein izanda ere. Ehuneko hori % 80koa dela kontsideratuko bagenu (etxebizitza eskuratzeko kostua zenbateste erabiltzen den irizpide berari jarraituz), batez besteko hipoteka-kuotak nabarmen egingo luke gora, eta batez besteko alokairu-errenta gaitutuko luke.

Salerosi diren etxebizitzaren batez besteko prezioak etengabeko hazkundera izan du. 2024an zehar 245.259 eurokoa izan zen Euskadin. Alokairuak bezala, prezioak altuagoak dira Gipuzkoan, 284.081 euro batez beste, Bizkaian (232.214 euro) eta Araban (209.714 euro) baino.

Etxebizitza librearen prezioak eta hipoteka-maileguen batez besteko interes-tasak gora egin dute.

Etxebizitzaren prezioaz gain, hipoteka-kredituen interes-tasek eragin erabakigarria dute etxebizitza jabetzan eskuratzeko aukeretan. Azken bi urteetan hipoteka-maileguen batez besteko interes-tasak oso igoera handia izan du. Urte batzuetan 1,5 eta 2,2 arteko gorabeherak izan ondoren, 2023an % 4,0ra igo zen, eta 2024an % 3,7an kokatzen da, batez beste.



ETXEBIZITZA-PREMIA

Diru-sarrera propioak dituzten 18 eta 34 urte bitarteko 58.000 gaztek baino gehiagok etxebizitza-premia dute Euskadin. Diru-sarrerak dituzten gazteak dira, diru-sarrera horiek etxebizitza bat erosi edo alokatzeko gastuei aurre egiteko nahikoak eta/edo egonkorak izan ala ez. 2019az geroztik, etxebizitza-premia duten gazteen kopurua gora egiten ari da, eta 2023an 2015eko kopurua ia berdindu da.

Diru-sarrera propioak dituzten 58.000 gaztek etxebizitza-premia dute.

Gazteen etxebizitza-premia dimentsionatzen laguntzen digun beste datu bat Etxebiden 18 eta 34 urte bitarteko pertsonen egindako etxebizitza-eskaeren kopurua da. 2024an 37.306 eskaera izan ziren, 2019tik izandako kopururik handiena. Hiru eskaeratik bi alokairuko etxebizitzarako ziren.

Gehienek alokairuko etxebizitzaren eskatzaile gisa izena ematen duten arren, galdetutakoan, emantzipatuta ez dauden 18 eta 29 urte bitarteko gazteen % 85,2k nahiago dute erosi alokatu baino. Eta aukera hori handitu egiten da adinarekin, emantzipatuta ez dauden 25 eta 29 urte bitarteko hamar gaztetik bederatzik erostea nahiago baitute. Alokairua nahiago izateak jaitsiera azkarra izan du alokairuaren prezioen igoeraren eta pisuen eskaintza eskasen ondorioz. Konkreterik, 2015ean gehiengo izatetik (% 58,2), 2024an % 11,9 soilik izatera pasa da.

Nahiz eta etxebizitza-eskaera gehienak alokairurako izan, emantzipatu gabeko gazteen % 85ek etxebizitza erostea nahiago dute alokatzea baino.

Etxebizitza-premia duten hamar gaztetik seik nahiago lukete etxebizitza gurasoena dagoen udalerri edo auzo berean egotea; proportzio hori jaitsi egin da aurreko urteekiko.



ETXEBIZITZA LIBREA ESKURATZEKO KOSTU TEORIKOA

Soldatapeko 18 eta 34 urte bitarteko gazteen batez besteko soldatak etxebizitzaren kostuekin erlaziona daitezke, eta horrela, alokairuko edo jabetzako etxebizitza bat eskuratzeko kostu teorikoa kalkulatu.

Hipotekaren bidez eskuratutako etxebizitza baten kasuan, gazte batek bere hileko soldata garbiaren % 64,2 bideratu beharko luke hipoteka-kuotaren lehen ordainketara, etxebizitzaren batez besteko prezioa, interes-tasa eta kreditu hipoteken batez besteko iraupena kontuan hartuta. 2024an, kopuru horrek bikoiztu egiten du finantza-erakundeek mailegu bat emateko orduan ezartzen duten zorpetze-muga maximoa (hau da, hileko soldata garbiaren % 30).

Soldataren % 30 soilik erabiliko balu jabetzako etxebizitza ordaintzeko, bakarka emantzipatu nahiko lukeen 18 eta 34 urte bitarteko gazte batek 114.521 euroko etxebizitza ordaindu ahal izango luke, hau da, 130.738 euro faltako litzaizkioke etxebizitzaren batez besteko prezioa estaltzeko. Bestela esanda, gazteen batez besteko soldatek % 114,2 egin beharko lukete gora, hipoteka bidez etxebizitza bat bakarka erosi ahal izateko.

Soldata baxuek eta lan-ezegonkortasunak alokairuan emantzipatzea onargarriagoa egiten dute, nahiz eta, esan bezala, ez den gazteen gehiengoaren aukerarik gogokoena.

Alokairua, zalantzarik gabe, aukera malguagoa da, eta alokairuen prezioak gora egin arren, ez da hain garestia, batez besteko soldataren gaineko ehunekoari dagokionez. Kalkulu teoriko horiek, ordea, ez dituzte egoera partikularrak kontuan hartzen. Litekeena da alokairura jotzen dutenek soldata baxuagoak izatea, eta ondorioz, errentaren ordainketa soldataren zati handiagoa izatea batez bestekoetan oinarritutako kalkuluekin alderatuta.

Hipotekadun etxebizitza libre bat bakarka eskuratzeko kostu teorikoa soldatapeko 18 eta 34 urte bitarteko gazteen batez besteko soldata garbiaren % 64,2 da.



Batez besteko soldata irabazten duen 18 eta 34 urte bitarteko gazte batek bakarrik emantzipatu nahi izango balu Euskadin, soldata garbiaren % 52,4 erabiltzea eskatuko lioke, Eusko Jaurlaritzan gordailututako fidantzen batez bestekoan oinarrituta.

Alokatzeko gehieneko errenta onargarria hilean 469 eurokoa izango litzateke, soldataren % 30 alokairua ordaintzeko erabiliko balu. Horrek esan nahi du Euskadin merkatu librean alokairuaren batez besteko errentara iristeko 350 euro faltako liratekeela, eta horrek azaltzen du zergatik den hain ezohikoa bakarkako emantzipazioa.

Alokairu-errenta bakarka ordaindu ahal izateko, 18 eta 34 urte bitarteko soldatapekoen batez besteko soldata garbia % 74,7 igo beharko litzateke, soldataren % 30 erabilia eta merkatuko egungo prezioetan. Adina txikiagoa den heinean batez besteko soldatak baxuagoak izaten direla kontuan hartuta, 18 eta 24 urte bitarteko gazteen batez besteko soldatak % 100etik gorako igoera beharko luke.

Emakumeek gizonak baino batez besteko soldata baxuagoak dituztenez, etxebizitza eskuratzeko kostu handiagoak dituzte, bai jabetzari dagokionez, bai alokairuari dagokionez.

Asko dira emantzipazioa atzeratzearen ondorioak. Txosten honetan horietako batzuk islatzen dira.

***Etxebizitza librea
alokairuan bakarka
eskuratzeko kostu
teorikoa soldatapeko
18 eta 34 urte bitarteko
gazteen batez besteko
soldata garbiaren erdia
baino handiagoa da.***



AZTARNA SOZIALA

Emantzipazioa egonkortasun ekonomiko nahikorik gabe gertatzen bada, etxebizitza eskuratzeko zailtasun ekonomikoek pobrezia edo pobrezia-arriskua ekar dezakete. 35 urtetik beherako pertsonak buru diren etxeetako pobrezia errealaren tasa % 6,1ekoa da. Tasa horrek nabarmen egin du hobera, eta horrek adierazten du behera egin duela gutxieneko baldintza ekonomikorik gabe emantzipatzen diren gazteen kopuruak. Pobrezia-arriskuan dauden gazteak buru dituzten etheen ehunekoa zertxobait handiagoa da (% 16,6), baina behera egin du.

Emantzipazioaren kostuek gora egiten duten heinean, hazi egiten da urtebeteen emantzipatu ezin izango direla uste duten gazteen ehunekoa, nahiz eta emantzipatu nahi izan, edo, beren kabuz bizi arren, gurasoen etxera itzuli beharko dutela uste dutenena. 2024an Euskadiko 25 eta 29 urte bitartekoen % 39,7k emantzipazioa zapuztuko zaiela aurreikusten du.

Emantzipazioa zapuzteak ondoez emozionala eragiten du gazteengan. 25 eta 29 urte bitarteko gazteen artean, urtebeteren buruan emantzipatu ezin izango direla uste dutenen, edo familiaren etxera itzuli beharko dutela uste dutenen osasun mentalaren balorazioa, egoera hori bizi ez dutenena baino baxuagoa da. Azken horiek, emantzipatu nahi ez dutelako, edo beren kabuz bizitzen jarraitu ahal izango dutela uste dutelako, 10etik 7,2 punturekin baloratzen dute beraien osasun mentala, eta lehenengoek aldiz 6,8 punturekin.

Emantzipazio berantiarraren beste ondorioetako bat gurasotasuna atzeratzea da. Ildo horretan, seme-alabarik ez duten baina etorkizunean guraso izateko desio handia edo nahikoa duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 32k uste du ez dela litekeena guraso nahiko luketen adinean izatea. Hauek batez beste, guraso izateko adin ideala 30 urtean kokatzen dute. Gurasotasun geroratuaren indize hori handitu egin da azken urteetan, eta zertxobait handiagoa da emakumeen artean (% 36) gizonen artean baino (% 29).

Lehenengo seme-alaba izatean batazbesteko amatasunaren adina 32,4 urtekoa da Euskadin 2024an, EBko 2023ko batez bestekoa baino ia hiru urte handiagoa. Gainera, adin hau lau urte handiagoa da espainiar nazionalitatea duten emakumeen artean, atzerriko nazionalitatea duten emakumeen aldean.

Emantzipazioa egonkortasun ekonomiko nahikorik gabe gertatzen bada, etxebizitza eskuratzeko zailtasunek pobrezia-arriskua ekar dezakete.

Emantzipatu ezinak ondoez emozionala eragin lezake.

Amatasunaren atzeratzea da emantzipazioa atzeratzearen beste ondorioetako bat. Lehenengo seme-alaba izatean batez besteko amatasunaren adina 32,4 urtekoa da.

Emantzipazioaren adierazleak Euskadin

Zer neurtzen dugu?

42 adierazle 6 arlotan



1. arloa

Emantzipatutako gazteak

1. Emantzipazio-tasa	23
2. Emantzipazio-nahia	24
3. Emantzipaziorako batez besteko adina	25
4. Emantzipaziorako adin erreal eta adin idealaren arteko aldea	26
5. Etxebizitzaren edukitze-erregimena	27
6. Emantzipatutako gazteen bizikidetza-modua	28

2. arloa

Laneratzea

7. Goi-mailako hezkuntza titulazio-tasa.....	30
8. Jarduera-tasa	31
9. Okupazio-tasa	32
10. Langabezia-tasa.....	33
11. Okupatutako gazteen jarduera-sektorea	34
12. Lanaldi partzialeko enplegu-tasa	35
13. Aldi baterako enplegu-tasa.....	36
14. Batez besteko hileko soldata garbia	37
15. Lana galtzeko edo baldintzak okertzeko arriskua	38
16. Langabezia dauden gazteen enplegua izateko aurreikuspena	39
17. Derrigorrez emigratu beharra aurreikustea	40
18. Laneratze-tasa Lanbide Heziketako ikasketen ostean.....	41
19. Laneratze-tasa unibertsitateko ikasketen ostean.....	42

3. arloa

Etxebizitza-merkatua

20. Hileko batez besteko alokairu-errenta	44
21. Hileko batez besteko hipoteka-kuota.....	45
22. Salerosi diren etxebizitzaren batez besteko prezioa.....	46
23. Hipoteka-maileguren interes-tasa.....	47

4. arloa

Etxebizitza-premia

24. Etxebizitza-premia duten gazteak	49
25. Etxebizitza-eskaera kopurua Etxebiden	50
26. Alokairuko edo jabetzako etxebizitza hobestea	51
27. Etxebizitza gurasoen udalerrri berean nahiago izatea	52

5. arloa

Etxebizitza librea eskuratzeko kostu teorikoa

28. Etxebizitza librea jabetzan hartzeko kostua	54
29. Erosteke gehieneko salneurri onargarria	55
30. Etxebizitza librearen salneurriaren eta gehieneko salneurri onargarriaren arteko aldea	56
31. Etxebizitza libre bat erosteko behar den diru-sarreraren igoera	57
32. Etxebizitza librea erosteko gehieneko azalera onargarria	58
33. Etxebizitza librea alokatzeko kostua	59
34. Alokatzeko gehieneko errenta onargarria	60
35. Merkatuko alokairu-errentaren eta gehieneko errenta onargarriaren arteko aldea .	61
36. Alokairua ordaintzeko behar den diru-sarreraren igoera	62

6. arloa

Aztarna soziala

37. Etxebizitza gazteen pobrezia errearen tasa	64
38. Etxebizitza gazteen pobrezia-arriskua	65
39. Emantzipazioa zapuztuko dela aurreikustea	66
40. Osasun mentala emantzipatzeko aurreikuspenen arabera	67
41. Gurasotasun geroratuaren indizea	68
42. Batez besteko amatasunaren adina lehenengo seme-alaba izatean	69

Biztanleria gaztea



15 ETA 29 URTE BITARTEKO BIZTANLEAK



Duela hamar urte baino
↑ 40.000
gazte gehiago

% 21,7
dira atzerrian
jaiotako gazteak


Gizonak **169.571** | Emakumeak **159.522**

Bizkaia **167.975** | Gipuzkoa **112.697**
Araba **48.421**

15-19 urte **112.993** | 20-24 urte **110.980** | 25-29 urte **105.120**

Jaioterria

Euskadi **244.406**
Beste erkidegoak **13.416**
Atzerria **71.271**



Azken hamarkadan, gazteen populazioa 40.000 pertsona baino gehixeago hazi da, eta Euskadiko biztanleriaren % 14,9 da. Atzerrian jaiotako biztanleen pisua ere hazi egin da; 2015ean % 16,2 ziren, eta 2024an, % 21,7.


30 ETA 34 URTE BITARTEKO BIZTANLEAK





Duela hamar urte baino **↓ 30.000** pertsona gutxiago

Gizonak
53.688

Emakumeak
53.675



Jaioterria



30 eta 34 urte bitarteko biztanle-taldeak 30.000 pertsona baino gehiago galdu ditu azken hamarkadan, eta 2024an biztanleriaren % 4,9 da. Talde horretan atzerrian jaiotako biztanleen proportzioak gora egin du, 2015ean % 19,2 izatetik 2024an % 31,9 izatera.

1. ARLOA

Emantzipatutako gazteak



1. EMANTZIPAZIO-TASA



18-34 urteko gazteen

% 32,3

emantzipatuta dago

% 50,9Europar Batasunean,
batez beste

Gizonak

% 29,9

Emakumeak

% 34,9

18-29 urte

% 17,2


18-24 urte

% 5,3

25-29 años


% 32,8

30-34 urte

% 71,5

18 eta 34 urte bitarteko gazteen % 32,3 emantzipatuta dago. 2015. urtetik emantzipazio-tasa 4,5 puntu jaitsi da. Emantzipazioa-tasa altuagoa da emakumeen artean gizonen artean baino. Euskadiko emantzipazio-tasa EBko batez bestekoaren oso azpitik dago.


2. EMANTZIPAZIO-NAHIA




Gizonak
% 74,5




Emakumeak
% 77,4



18-24 urte
% 73,0



25-29 urte
% 81,5



Gurasoekin bizi diren 18 eta 29 urte bitarteko pertsona gehienek beren kontura bizi nahiko lukete. Emantzipazio-nahi hori handitu egiten da 25 urtetik aurrera; izan ere, une horretan gehienek ikasketak amaitu dituzte eta gazte asko lan-merkatuan sartu dira. Emantzipazio-nahiak behera egin du 2024an.


3. EMANTZIPAZIORAKO BATEZ BESTEKO ADINA



Gizonak


30,4 urte

Emakumeak

29,2 urte**urtebete lehenago**emakumeak urtebete
gazteago emantzipatzen dira

Emantzipaziorako batez besteko adina 29,8 urte da Euskadin. Batez beste, emakumeak gizonak baino urtebete lehenago emantzipatzen dira. Europako batez bestekoarekiko aldea aurreko urteetan baino txikiagoa izan arren, Euskadi 3,6 urte atzerago dago EBko batez bestekoaren aldean.

4. EMANTZIPAZIORAKO ADIN ERREAL ETA ADIN IDEALAREN ARTEKO ALDEA



5,2 urteko aldea

emantzipatzeko **adin errealaren**
eta **adin idealaren** artean



Gizonak

5,7 urte



Emakumeak

4,7 urte

29,8 urterekin

emantzipatzen dira,
batez beste
(**adin erreala**)

24,6 urterekin

emantzipatzea
nahiko lukete
(**adin ideala**)


emakumeak

nahiko luketen adinetik
gertuago emantzipatzen
dira



jaitsi da
aldea

emantzipatzeko **adin**
errealearen eta adin
idealaren artean



Emantzipaziorako adin ideala, 15 eta 29 urteko bitarteko gazteen arabera, 24,6 urte dira. Emantzipaziorako batez besteko adinaren eta adin idealaren arteko aldea urte bat baino gehiago jaitsi da 2017tik.

5. ETXEBIZITZAREN EDUKITZE-ERREGIMENA

Emantzipatutako 18 - 34 urteko gazteria

% 52,4**jabetzako etxebizitzan
bizi da****Gizonak****% 53,5****Emakumeak****% 51,6**

18-29

% 38,9

30-34

% 61,0**% 44,5****alokatutako etxebizitzan
bizi da****Gizonak****% 43,5****Emakumeak****% 45,3**

18-29

% 58,0


30-34

% 36,0**% 3,1****doan lagatako
etxebizitzan bizi da****Gizonak****% 3,0****Emakumeak****% 3,1**

18-29

% 3,1

30-34

% 3,1


Jabetza da Euskadin emantzipatuta dauden 18 eta 34 urte bitarteko pertsonen edukitze-erregimen ohikoena. 30 urtetik behera, ordea, emantzipatutako gehienak alokairuan daude.

6. EMANTZIPATUTAKO GAZTEEN BIZIKIDETZA-MODUA

Emantzipatutako 18 - 34 urteko gazteria

% 60,8 bikotekidearekin bizi da **% 23,1** beste pertsona batzuekin bizi da **% 16,1** bakarrik bizi da

Batezbestekoaren ginetik dauden taldeak






18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatu gehienak bikotekidearekin bizi dira, seme-alabekin edo seme-alabarik gabe. Bizikidetza-modu hori ohikoagoa da 30 eta 34 urte bitartekoen artean eta emakumeen artean. Bikotekidea ez den beste pertsona batzuekin (hala nola lagunak, senideak edo bestelako pertsonak) etxebizitza partekatzea da 30 urtetik beherakoen artean bigarren modu hedatuena, eta, bereziki, atzerriko nazionalitatea dutenen artean. Gutxi dira bakarrik bizi diren gazteak.

2. ARLOA

Laneratzea



7. GOI-MAILAKO HEZKUNTZA TITULAZIO-TASA



25 eta 34 urte bitarteko biztanleen % 67,8_k hirugarren mailako titulazioa du (ISCED 2011, 5etik 8ra bitarteko mailak), gradu, master eta doktoregoko unibertsitate-ikasketak eta goi-mailako heziketa-zikloak barne hartzen dituena. Azken hamarkadan, goi-mailako ikasketak dituzten gazteen ehunekoa hamar puntu baino gehiago hazi da. Ondorioz, Euskadi Europako ehuneko handieneko eskualdeen artean kokatzen da, EBko batez bestekoaren (% 44,2) 20 puntu gainera. Ikasketak luzatzeak eragina izan dezake lan-munduan sartzeko atzerapenean eta, ondorioz, emantzipazioan.

8. JARDUERA-TASA

**% 55,9**

Europar
Batasuneko
jarduera-tasa
15-29 urtekoen
artean

2024ko tasa

16-29 urte
% 51,4

Gizonak
% 52,8

Emakumeak
% 50,0

16-24 urte
% 32,6

25-29 urte
% 86,0

30-34 urte
% 86,1

Gizonak
% 91,5

Emakumeak
% 80,6

2025eko 2. hiruhileko tasa

16-29 urte
% 50,3


Gizonak
% 50,9

Emakumeak
% 49,7

30-34 urte
% 89,4


Gizonak
% 92,4

Emakumeak
% 86,7








16 eta 29 urte bitarteko gazteen erdia lan egiteko prest dago. 25 eta 29 urte bitartean, jarduera-tasa % 86 izan zen 2024an, hau da, 30 eta 34 urte bitarteko adin-taldearen antzeko ehunekoa. Izan ere, 25 urtetik aurrera, gehiengoa dira ikasketak amaitu eta lan egiteko moduan daudenak. Gizonek emakumeek baino jarduera-tasa handixeagoak dituzte.






9. OKUPAZIO-TASA



2024ko tasa



2025eko 2. hiruhileko tasa



Gazteen okupazio-tasak gora egin du azken urtean, eta azken hamarkadako baliorik altuena da, nahiz eta oraindik Europar Batasuneko batez bestekotik zertxobait azpitik dagoen. 2021az geroztik, gizon gazteen okupazio-tasak emakume gazteenak baino altuagoak dira. 25 urtetik aurrera, okupazio-tasa handitu egiten da: % 78,3koa da 25 eta 29 urte bitartean, eta % 78,1ekoa 30 eta 34 urte bitartean. 2025eko bigarren hiruhilekoan, 16 eta 29 urte bitarteko gazteen enplegu-tasak 2024koen antzeko zifretan mantendu dira.

2024ko urteko okupazioaren batez bestekoa EBkoa baino 3,7 puntu baxuagoa baino ez da.

10. LANGABEZIA-TASA

% 11,4
Europar
Batasuneko
langabezia-tasa
15-29 urtekoen
artean

2024ko tasa

16-29 urte
% 10,9

Gizonak
% 10,7

Emakumeak
% 11,1

16-24 urte
% 13,5

25-29 urte
% 9,0

30-34 urte
% 9,3

Gizonak
% 10,2

Emakumeak
% 7,9

2025eko 2. hiruhileko tasa

16-29 urte
% 9,4


Gizonak
% 8,5

Emakumeak
% 10,3

30-34 urte
% 6,2

Gizonak
% 5,7

Emakumeak
% 6,8




2024an gazteen langabezia-tasa azken hamarkadako baxuena izan da, lehen aldiz EBko batez bestekoaren zertxobait azpitik. 2025eko bigarren hiruhilekoko datuak ehuneko 1,5 puntuko beherakada erakusten du 16 eta 29 urte bitartekoaren artean, eta 3,1ekoa 30 eta 34 urte bitartekoaren artean; bi kasuetan, % 10etik behera. Sexuaren eta bost urteko adin-taldearen arabera datuak laginketa-akats handia dute, eta, beraz, emaitzak zuhurtziaz hartu behar dira.


11. OKUPATUTAKO GAZTEEN JARDUERA-SEKTOREA



ZERBITZUAK



INDUSTRIA



ERAIKUNTZA*



LEHEN SEKTOREA*

16-29
urte

% 79,9

% 16,3

% 3,1

% 0,8

30-34
urte


% 76,6

% 19,0

% 3,6

% 0,8

* Eraikuntza eta lehen sektoreko datuek laginketa-errore handia dute, eta, beraz, emaitzak zuhurtzia handiz hartu behar dira.



Zerbitzuen sektorean biltzen dira 16 eta 29 urte bitarteko gazte okupatu gehienak, eta baita 30 eta 34 urte bitarteko pertsona gehienak ere, zertxobait gutxiago bada ere. Industria da gazteen okupazio-ehuneko handiena duen bigarren sektorea, nahiz eta 16 eta 29 urte bitarteko gazteen artean pisua galtzen joan den, zerbitzuen sektorea irabazten joan den neurri berean. Eraikuntzak eta, batez ere, lehen sektoreak (nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza) oso ehuneko urriak dituzte.

12. LANALDI PARTZIALEKO ENPLEGU-TASA



16-29 urteko gazte okupatuen

% 32,2_k

lanaldi partziala du



Gizonak

% 25,6

Emakumeak

% 39,5**% 23,8**Europar Batasuneko
lanaldi partzialeko
enplegu-tasa 15-29
urtekoen artean

16-24 urte

% 47,1


25-29 urte

% 22,4

30-34 urte*





% 16,0

* 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen datuek laginketa-errore handia dute, eta, beraz, emaitzak zuhurtziaz hartu behar dira.




16 eta 29 urte bitarteko gazte okupatuen herenak lanaldi partzian modu jarraituan egiten du lan, eta ehunekoak ez da nabarmen aldatu azken urteetan. 16 eta 24 urte bitartekoaren artean % 47,1ek dute lanaldi partziala, eta 16 eta 24 urte bitarteko emakumeen % 39,5ek. 30 eta 34 urte bitarteko adin-taldean lanaldi partzialeko enplegu-tasa % 16,0koa da. Euskadiko gazteen lanaldi partzialeko enplegu-tasa EBko batez bestekoa baino ehuneko 8,4 puntu handiagoa da, eta ia bikoiztu egiten du Euskadiko biztanleria okupatuaren tasa orokorra (% 17,0).

13. ALDI BATERAKO ENPLEGU-TASA




* 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen datuek laginketa-errore handia dute, eta, beraz, emaitzak zuhurtzia handiz hartu behar dira.



16 eta 29 urte bitarteko soldatapekoen artean, 10 pertsonatik 4k aldi baterako kontratua dute. Tasa hori azken urteetako baxuena da, eta 25 puntu jaitsi da 2021eko abenduaren 31n lan-erreformarako, enplegu-egonkortasunaren bermerako eta lan-merkatuaren eraldaketarako premiazko neurriei buruzko 32/2021 Errege Lege Dekretua indarrean jarri zenetik. Behin-behinekotasuna handiagoa da 16 eta 24 urte bitartekoaren artean eta emakumeengan. 30 eta 34 urte bitarteko adin-taldean, berriz, behin-behinekotasun tasa % 26,1era jaisten da. Euskadiko 16 eta 29 urte bitarteko soldatapeko gazteen behin-behinekotasun-tasa Europar Batasuneko batezbestekoa baino 6,4 puntu handiagoa da.

14. BATEZ BESTEKO HILEKO SOLDATA GARBIA



↑ Igo da
batez besteko soldata

↓ Emakumeek
gutxiago jasotzen dute

Gizonak
1.617 €

Emakumeak
1.438 €


18-29 urte
1.381 €

30-34 urte
1.774 €

Bizkaia
1.585 €


Gipuzkoa
1.555 €

Araba
1.487 €



18 eta 34 urte bitarteko soldatapekoen hileko soldata garbia 1.564 eurokoa da, aparteko ordainsariak hainbanatuta. Emakumeek gizonek baino soldata baxuagoak dituzte.


15. LANA GALTZEKO EDO BALDINTZAK OKERTZEKO ARRISKUA




Gizonak
% 37



Emakumeak
% 46



20-24 urte
% 39




25-29 urte
% 44

15 eta 19 urte bitarteko gazte nahikorik ez dago lanean estatistikoki esanguratsuak diren datuak eskaintzeko.


% 27_k
urtebeteko epean
lana gal dezakeela
uste du

% 14_k
bere lan-baldintzak
oker daitezkeela
uste du



Lanean ari diren 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 41ek uste du litekeena dela urtebeteko epean beren lan-baldintzek okerrera egitea edo, are gehiago, enplegua galtzea. Datu hori aurreko urtekoa baino 2 puntu handiagoa da, baina 2020ko emaitzatik urrun dago (% 48). Gazte okupatuak % 27k uste du urtebeteko epean enplegua gal dezakeela; ehuneko hori 2023koa bera da. Bestalde, % 14k, lana galtzeko beldurrik izan ez arren, lan-baldintzak okertu dakizkiokeela uste du, iaz baino bi puntu gehiago. Emakumeek gizonek baino aurreikuspen ezkorragoa dute.

16. LANGABEZIAN DAUDEN GAZTEEN ENPLEGUA IZATEKO AURREIKUSPENA




Gizonek aurreikuspen hobeak dituzte




Gizonak
% 73



Emakumeak
% 65




20-24 urte
% 68




25-29 urte
% 74

15 eta 19 urte bitarteko gazte nahikorik ez dago langabezian estatistikoki esanguratsuak diren datuak eskaintzeko



Enplegua lortzea aurreikusteari buruzko adierazleak urtebeteko epean lana aurkitzea espero duten gazteen ehunekoa jasotzen du. Langabezian dauden 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 70ek epe laburrean lana aurkitzea espero dute, 2023an baino zertxobait gutxiago (% 72), baina 2020ko eta 2021eko datuak baino askoz ere gehiago (% 64 eta % 62 hurrenez hurren), hauek pandemiak oztopatutako datuak baitziren.

17. DERRIGORREZ EMIGRATU BEHARRA AURREIKUSTEA




emigratzeko aukerak dituztela
uste duten **gehienek joan nahi dute**




Gizonak
% 11




Emakumeak
% 9




15-19 urte
% 8



20-24 urte
% 10




25-29 urte
% 12



15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 10ek uste du etorkizunean atzerrira joan beharko duela lan egitera, nahiz eta nahi ez izan. 2018tik gertatzen ari den bezala, adierazlea oso zifra baxuetan mantentzen da, atzerrira lanera joateko aukera dutela uste duten pertsona gehienek benetan hala nahi dutelako. Ez dago alde handirik kolektiboen artean, baina 25 eta 29 urte bitartekoek batez bestekoak baino 2 puntu portzentual gehiago dituzte.

18. LANERATZE-TASA LANBIDE HEZIKETAKO IKASKETEN OSTEAN



Gizonak
% 85




Emakumeak
% 85

**= gizonak eta
emakumeak**




Igoera nabarmena
azken hamarkadan



Lanbide Heziketako erdi-mailako edo goi-mailako ikasketak amaitu eta 12 hilabetera aktibo dauden pertsonen % 85 lanean ari dira. Datu hori, 2023koarekin batera, serieko ehunekorik altuena da. 2017tik nabarmen igo da Lanbide Heziketako ikasketak amaitu dituzten pertsonen okupazio-tasa. Gizonek eta emakumeek laneratze-tasa bera dute.

19. LANERATZE-TASA UNIBERTSITATEKO IKASKETEN OSTEAN




Gizonak
% 92



Emakumeak
% 90

 **gizonak eta emakumeak**

Gizonek emakumeek baino laneratze-tasa handixeagoa dute




Euskal unibertsitateetan (EHU, Deustu eta Mondragon) hiru urte lehenago graduatu diren eta 2024an aktibo dauden pertsonen okupazio-tasa % 91koa da. Gizonek emakumeek baino laneratze-tasa handixeagoa dute.

3. ARLOA

Etxebizitza- merkatua



20. HILEKO BATEZ BESTEKO ALOKAIRU-ERRENTA



819 €

alokairu-kontratuen batez
besteko hileko errenta da,
Eusko Jaurlaritzaren fidantzen
erregistroaren arabera



alokairuaren batez besteko errenta
gero eta **garestiagoa da**



Gipuzkoak

ditu alokairu-errenta
garestienak

Bizkaia



815 €

Araba

747 €

Gipuzkoa

854 €



Ohiko etxebizitza libreko alokairu kontratuen hileko batez besteko errenta, Eusko Jaurlaritzaren fidantzen erregistroan gordailututako alokairu-fidantzen batez bestekoaren arabera, 819 eurokoa da. Batez besteko alokairu altuena Gipuzkoan dago, eta baxuena, berriz, Araban.


21. HILEKO BATEZ BESTEKO HIPOTEKA-KUOTA



↑ 2023tik aurrera,
hilean 700 € baino gehiago


↓ zertxobait
merkeago

fidantzen arabera alokairuen batez
besteko **errentekin alderatuta**



Euskadiko hileko batez besteko hipoteka-kuotak goranzko joera izan du azken bi urteetan, eta 769 eurokoa izan da 2024an. Hipoteka-kuotak alokairu-errenten batez besteko zenbatekoa baino zertxobait baxuagoak dira.

22. SALEROSI DIREN ETXEBIZITZEN BATEZ BESTEKO PREZIOA



245.259 €

2024an eskrituratutako
etxebizitza libreen batez
besteko zenbatekoa da.

↑ goranzko
joera



Gipuzkoak

du preziorik
garestiena

Bizkaia


232.214 €

Gipuzkoa

284.081 €


Araba

209.714 €



2024an notarioaren aurrean eskrituratutako etxebizitzaren batez besteko zenbatekoa 245.259 eurokoa da. Salerosketaren xede diren etxebizitzaren prezioak goranzko joera du Euskadin. Gipuzkoak du batez besteko baliorik handiena, Bizkaia ondoren eta, azkenik, Arabak.

23. HIPOTEKA-MAILEGUEN INTERES-TASA




% 3,7

hiru urtetik gorako
hipoteka-maileguen batez
besteko **interes-tasa da**

↑ 2024

hamarkadako altuena,
2023koa izan ezik





Urte batzuetan interes-tasa baxuak izan ondoren, 2024an etxebizitza librea erosteko hiru urtetik gorako hipoteka-maileguen batez besteko interes-tasa % 3,7koa izan da, 2023ko interes-tasa baino zertxobait baxuagoa (% 4,0ra iritsi zen), baina aurreko urteetakoa baino askoz altuagoa.

4. ARLOA

Etxebizitza- premia




24. ETXEBIZITZA-PREMIA DUTEN GAZTEAK



18 eta 34 urte bitarteko emantzipatu gabe dauden eta diru-sarrera propioak dituzten pertsonen artean, etxebizitza-premia dutela dioten pertsona kopuruak gora egin du azken urteetan, eta 2015eko zifraren antzekoa da. 58.000 gaztek baino gehiagok dute etxebizitza-premia Euskadin.

25. ETXEBIZITZA-ESKAERA KOPURUA ETXEBIDEN



37.306

18-34 urteko pertsonek
Etxebiden **egindako**
etxebizitza-eskaeren kopurua

↑4.000

eskaera gehiago,
aurreko urtearekin
alderatuta

% 68,2

alokairuko
etxebizitzarako
eskaerak



Alokairurako
25.426




Jabetzarako
11.880




Emakumeen
eskaerak
15.493



Gizonen
eskaerak
13.820








Baterako
eskaerak
7.993



2024an, 18 eta 34 urte bitarteko pertsonek 37.306 etxebizitza-eskaera egin zituzten Etxebiden, hau da, aurreko urtean baino 4.000 gehiago. Horietatik % 68,2 alokairuko etxebizitza bat eskuratzeko. Eskaera indibidualen artean, emakumeen eskaera kopurua gizonena baino pixka bat handiagoa da, eta baterako eskaerak % 21,4 baino ez dira.


26. ALOKAIRUKO EDO JABETZAKO ETXEBIZITZA HOBESTEA

Emantzipatuta ez dauden 18-29 urte bitartekoen artean

% 85,2_k erostea nahiago du**% 11,9_k** alokatzea nahiago du

Oraindik familia-etxean bizi diren gazte gehienek nahiago dute etxebizitza erostea norberaren etxebizitza eskuratzeko modu gisa. Erostea alokairua baino nahiago izateak gora egin du pixkanaka 2015etik, urte hartan alokairua baitzen aukera nagusia. Alokairuen prezioaren igoerak eta 2022ra arte hipoteka-kredituek mantendu zituzten interes-tasa baxuek azaltzen dute aldaketa hori.

27. ETXEBIZITZA GURASOEN UDALERRI BEREAN NAHIAGO IZATEA



**Etxebizitza-premia duten
18 eta 34 urte bitarteko
emantzipatu gabeko gazteen**

% 61,2_k

udalerri berean bizi nahi du



Gizonak

% 62,0



Emakumeak

% 60,2



18-24 urte

% 57,3



25-34 urte

% 64,3

Bizkaia


% 58,0

Gipuzkoa

% 62,8

Araba

% 71,7




Gurasoekin bizi diren eta etxebizitza bat behar dutela dioten 18 eta 34 urte bitarteko hamar gaztetik seik nahia-go lukete etxebizitza hori gurasoen udalerri edo auzo berean egotea. Egungo datua aurreko urteetako baino zertxobait baxuagoa da, batez ere 2019koarekin konparatuz gero, urte hartan % 79ra iritsi baitzen. Adinean aurrera egin ahala, udalerri edo auzo berean bizitzen jarraitzeko nahia handitu egiten da.

5. ARLOA

Etxebizitza librea eskuratzeko kostu teorikoa



28. ETXEBIZITZA LIBREA JABETZAN HARTZEKO KOSTUA



18-34 urteko gazteen
hileko soldataren

% 64,2

hipoteka-kuota ordaintzeko



jaitsi egin da

etxebizitza libre bat
jabetzan eskuratzeko kostua



Gizonak

% 62,1



Emakumeak

% 69,9



18-29 urte

% 72,8




18-24 urte

% 85,0



25-29 urte

% 65,6



30-34 urte

% 56,6

Bizkaia


% 60,0

Gipuzkoa

% 74,8

Araba


% 57,8



Soldatapeko 18 eta 34 urte bitarteko gazteek, bakarrik emantzipatu nahi balute, beren hileko soldata garbiaren % 64,2 bideratu beharko lukete hipoteka bidez etxebizitza libre bat erostera. Hau kalkulatzeko gazteen batez besteko soldatak, eskrituratutako etxebizitzaren batez besteko salerosketa-prezioa eta 2024ko interes-tasa eta hipoteka-kredituen batez besteko iraupena hartzen dira kontuan. 2023tik 2024ra izandako beherakada txikia interes-tasen jaitsierak eta soldaten igoera apalak eragin dute.

Emakumeak, gazteenak eta Gipuzkoan bizi direnak dira bakarrik emantzipatzeko eskuratzeko kostu teoriko handiena dituztenak.

29. EROSTEKO GEHIENEO SALNEURRI ONARGARRIA



114.521 €

gehienez, ordaindu ahal izango lituzke, bakarka, soldatapeko 18-34 urteko gazte batek



igo egin da

erosteko gehieneko salneurri onargarria



Gizonak

118.392 €



Emakumeak

105.292 €



18-29 urte

101.115 €



18-24 urte

86.532 €



25-29 urte

112.117 €



30-34 urte

129.957 €

Bizkaia


116.107 €

Gipuzkoa

113.893 €

Araba


108.932 €



114.521 eurokoa da etxebizitza libre batek izan beharko lukeen salneurria, hori erosteko sinatutako hipotekaren lehen hileko kuotak ez lezan 18 eta 34 urte bitarteko soldatapeko gazte baten hileko soldata garbiaren % 30 gainditu. Soldaten igoerak eta interes-tasen jaitsierak erosteko gehieneko salneurri onargarriaren igoera eragin dute.

Emakumeek, gazteenek eta Araban bizi direnek erosteko ahalmen txikiagoa dute.

30. ETXEBIZITZA LIBREAREN SALNEURRIAREN ETA GEHIENEO SALNEURRI ONARGARRIAREN ARTEKO ALDEA



130.738 €

euroko aldea etxebizitzaren batez besteko prezioaren eta 18-34 urteko soldatapeko batentzako gehieneko prezio onargarriaren artean



aldea
igo egin da



alderik handiena
Gipuzkoan



Gizonak
126.867 €



Emakumeak
139.967 €



18-29 urte
144.144 €



18-24 urte
158.727 €



25-29 urte
133.142 €



30-34 urte
115.302 €

Bizkaia


116.107 €

Gipuzkoa

170.188 €


Araba

100.782 €



2024an eskrituratutako etxebizitza libreen batez besteko salneurriaren eta 18 eta 34 urte bitarteko gazte soldatadun batek ordaindu ahal izango lukeen (hipotekaren lehenengo kuota ordaintzeko gehienez hileko soldata garbiaren % 30) salneurri onargarriaren arteko aldea asko hazi da azken urteetan. Diferentzia handiena Gipuzkoan ematen da, non 170.188 eurokoa den.

31. ETXEBIZITZA LIBRE BAT EROSTEKO BEHAR DEN DIRU-SARREREN IGOERA



% 114,2

igo beharko litzateke soldata,
bakarka ordaindu ahal izateko
etxebizitza erosteko mailegu baten
lehen kuota

↑ **emakumeak
eta 30 urtetik
beherakoak**

**batez bestekoaren
gaintik, soldata
baxuagoak dituztelako**

↑ **Gipuzkoa**

**batez bestekoaren
gaintik, etxebizitzak
garestiagoak direlako**



Gizonak
% 107,2



Emakumeak
% 132,9



18-29 urte
% 142,6



18-24 urte
% 183,4



25-29 urte
% 118,8



30-34 urte
% 88,7

Bizkaia


% 100,0

Gipuzkoa

% 149,4


Araba

% 92,5



18 eta 34 urte bitarteko soldatapeko gazteen batez besteko soldata garbia % 114,2 igo beharko litzateke, gehienez soldataren % 30 erabilita etxebizitza librea merkatuko prezioan erosteko hipoteka-mailegu baten lehen kuota bakarka ordaindu ahal izateko. Hazkunde horrek are handiagoa izan beharko luke 30 urte baino gutxiago dituztenen, Gipuzkoan bizi direnen eta emakumeen kasuan.

32. ETXEBIZITZA LIBREA EROSTEKO GEHIENEO AZALERA ONARGARRIA



41,0 m²

18-34 urteko gazteek, soldataren % 30 bideratuz, erosi ahal izango luketen **etxebizitzaren gehieneko azalera**



hortik behera

18-29 urtekoak, emakumeak eta gipuzkoarrak



Gizonak

41,5 m²



Emakumeak

37,7 m²



18-29 urte

36,2 m²



18-24 urte

30,0 m²



25-29 urte

39,3 m²



30-34 urte

46,6 m²

Bizkaia


43,4 m²

Gipuzkoa

33,9 m²


Araba

50,9 m²



41,0 m² da soldataren % 30 hipoteka-kuota ordaintzeko erabiliz 18 eta 34 urte bitarteko pertsona batek bere kabuz ordaindu dezakeen etxebizitzaren gehieneko azalera. Batez besteko zifra horren azpitik daude 18 eta 29 urte bitarteko pertsonak, Gipuzkoan bizi direnak, eta emakumeak.

33. ETXEBIZITZA LIBREA ALOKATZEKO KOSTUA



18-34 urteko gazteen
hileko soldataren

% 52,4

alokairu-errenta
ordaintzeko



kostu altuagoak

emakumeentzat, 30 urtetik
beherakoentzat eta Gipuzkoako
gazteentzat



Gizonak
% 50,7



Emakumeak
% 57,0



18-29 urte
% 59,4



18-24 urte
% 69,4



25-29 urte
% 53,5



30-34 urte
% 46,2


Bizkaia

% 51,4

Gipuzkoa
% 54,9

Araba

% 50,2



Etxebizitza libre bat bakarrik alokatzeak bere hileko batez besteko soldata garbiaren % 52,4 bideratzea eskatuko lioke Euskadiko 18 eta 34 urte bitarteko pertsona okupatu bati, Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailaren Alokairuaren Merkatuaren Estatistikan jasotako alokairu-errenten batez besteko prezioak kontuan hartuta. Estatistika hau Eusko Jaurlaritzan gordailututako alokairu-fidantzeta oinarritzen da.

34. ALOKATZEKO GEHIENEO ERRENTA ONARGARRIA



469 €

18-34 urteko gazte batek
**ordaindu lezakeen gehieneko
alokairu-errenta**, soldataren
% 30 bideratuz gero



**igo da gehieneko
errenta onargarria**
batez besteko **soldata**
igo delako



Gizonak
485 €



Emakumeak
431 €



18-29 urte
414 €



18-24 urte
354 €



25-29 urte
459 €



30-34 urte
532 €

Bizkaia


476 €

Gipuzkoa

467 €


Araba

446 €



469 euro da alokatzeko gehieneko errenta onargarria 18 eta 34 urte bitarteko soldatapeko batek bakarrik emantzipatu nahi badu. Gehieneko errenta onargarri hori kalkulatzeko, gazteen batez besteko soldata garbiaren % 30 hartzen da kontuan. Batez besteko soldatan izan den igoerak, gehieneko errenta onargarria handitzea eragin du aurreko urteekin alderatuta.

35. MERKATUKO ALOKAIRU-ERRENTAREN ETA GEHIENeko ERRENTA ONARGARRIAREN ARTEKO ALDEA



350 €

euroko aldea alokairuaren batez besteko prezioaren eta 18-34 urteko pertsona batentzako gehieneko prezio onargarriaren artean



alderik handienak

30 urtetik beherakoak, emakumeak eta Gipuzkoako gazteak



Gizonak
334 €



Emakumeak
388 €



18-29 urte
405 €



18-24 urte
465 €



25-29 urte
360 €



30-34 urte
287 €

Bizkaia


339 €

Gipuzkoa

388 €


Araba

301 €



Alokairu librearen batez besteko prezioaren eta gehieneko prezio onargarriaren (18 eta 34 urte bitarteko gazte soldatadun baten hileko soldata garbiaren % 30) arteko aldea 350 eurokoa izan da 2024an. Alde handienak gazteenetan eta emakumeetan (soldata baxuagoak dituztelako), eta Gipuzkoan (lurralde horretan alokairu librearen batez besteko errentak altuagoak direlako) ematen dira.

36. ALOKAIKUA ORDAINTEKO BEHAR DEN DIRU-SARREREN IGOERA



% 74,7

igo beharko litzateke 18-34 urteko gazteen batez besteko soldata, bakarka ordaindu ahal izateko alokairu-errenta



% 100 baino handiagoa

25 urtetik beherakoen artean



Gizonak
% 69,0



Emakumeak
% 90,0



18-29 urte
% 97,8



18-24 urte
% 131,2



25-29 urte
% 78,4



30-34 urte
% 53,9

Bizkaia


% 71,3

Gipuzkoa

% 83,1

Araba

% 67,5




18 eta 34 urte bitarteko soldatapeko gazteen batez besteko soldata garbia % 74,7 handitu beharko litzateke merkatu librean gehienez ere soldataren % 30a erabiliz alokairu-errenta bakarrik ordaindu ahal izateko. Diru-sarreraren beharrezko igoera hori % 100etik gorakoa da 25 urte baino gutxiago dituztenen artean.

6. ARLOA

Aztarna soziala



37. ETXEBIZITZA GAZTEEN POBREZIA ERREALAREN TASA



35 urtetik beherakoak
buru diren etxebizitzetan
bizi diren pertsonen

% 6,1

**pobrezia-egoeran
bizi da**

% 4,0

**da pobrezia-egoeran
dagoen Euskadiko
biztanleria**



**Gizonak
% 5,9**



**Emakumeak
% 6,4**

Bizkaia

% 6,1

Gipuzkoa


% 5,5

Araba

% 7,7




**jaitziera
aurreko urteekiko**



35 urtetik beherako pertsona bat buru duten etxeetan bizi diren pertsonen % 6,1 pobrezia-egoeran daude. Aurreko neurketekin alderatuta, nabarmen egin du behera pobrezia-egoerak, baina tasa hori etxe guztiei dagokien % 4aren gainetik dago. Egoera horretan dauden emakumeen ehunekoa zertxobait altuagoa da.

38. ETXEBIZITZA GAZTEEN POBREZIA-ARRISKUA



35 urtetik beherakoak
buru diren etxebizitzetan
bizi diren pertsonen

% 16,6

pobrezia-arriskuan dago



Gizonak

% 14,5



Emakumeak

% 18,9

Bizkaia

% 17,8

Gipuzkoa
% 15,2


Araba

% 16,7




Emakumeek

gizonek baino **pobrezia-arrisku**
handiagoa dute



Pobrezia-arriskua 35 urtetik beherako pertsona bat buru duten etxeetan bizi diren pertsonen % 16,6ra iristen da. Zifra hori aurreko urteetan baino zertxobait txikiagoa da, baina etxe guztiei dagokien % 7,3aren gainera dago. Emakumeek gizonek baino pobrezia-arrisku handiagoa dute.

39. EMANTZIPAZIOA ZAPUZTUKO DELA AURREIKUSTEA



% 39,7

**emantzipatuta bizi nahi
badute ere, urtebeteko
epean ezin izango direla
emantzipatu uste duten 25-29
urteko gazteen ehunekoa**




**Gizonak
% 39,7**



**Emakumeak
% 39,7**




**10 puntu gehiago
2019an baino**



Adierazle honek emantzipazio-proiektuak urtebeteko epean burutzerik izango ez duten 25 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa jasotzen du, dela familiaren etxetik ateratzea gustatuko litzaiekeenak baina gertagarri ikusten ez dutenak, dela nahi izan gabe, familiaren etxera itzuli beharko dutela uste dutenak. Adierazleak gora egin du 2019tik, orduan lortu baitzuen daturik onena.

40. OSASUN MENTALA EMANTZIPATZEKO AURREIKUSPENEN ARABERA


Osasun mentalaren balorazioa



6,8 /10

urtebeteko epean
emantzipatzeko
AURREIKUSPENIK EZ duten
25-29 urteko gazteak


(emantzipatu nahi dute, baina
uste dute ezin izango dutela)



7,2 /10


urtebeteko epean
emantzipatuta bizitzeko
AURREIKUSPENA duten
25-29 urteko gazteak

(emantzipatuta bizitzea
espero dute)



Nahi izan arren urtebeteko epean emantzipatu ezin izango direla uste duten edo, emantzipatuta egonda ere, familiaren etxera itzuli beharko dutela uste duten 25 eta 29 urte bitarteko pertsonen egoera horretan ez dauden azpitik baloratzen dute beraien osasun mentala. Nahiz eta osasun mentala faktore askoren menpe egon, eta emantzipatu nahi izateak eta horretarako aukerarik ez izateak osasun mentalean izan dezakeen eragina ezin den isolatu, nolabaiteko lotura ikusten da.

41. GURASOTASUN GERORATUAREN INDIZEA



Guraso izan nahiko luketen
15-29 urteko pertsonen

% 32_k

ez du uste nahi duen adinean
aita edo ama izango denik



Gizonak
% 29



Emakumeak
% 36



15-19 urte
% 25



20-24 urte
% 35



25-29 urte
% 37




igo egin da

nahi baino beranduago aita/ama
izango direla uste duten 15-29 urteko
gazteen ehunekoa




Adinean aurrera egin ahala

gero eta gazte gehiagok pentsatzen du
ez dela **nahi duen adinean aita/ama**
izango



Oraindik seme-alabarik ez duten baina etorkizunean guraso izan nahiko luketen 15 eta 29 urte bitarteko pertsonen % 32k uste du ez dela posible izango nahi duten adinean guraso izatea. Ehuneko horrek gora egin du azken hiru urteetan. Adinean aurrera egin ahala, handitu egiten da gustatuko litzaiekeen adinarekin guraso izango ez direla uste dutenen ehunekoa. Emakumeek gizonek baino gurasotasun geroratuaren ehuneko handiagoa dute.

42. BATEZ BESTEKO AMATASUNAREN ADINA LEHENENGO SEME-ALABA IZATEAN



32,4 urte

emakumeek lehen seme-alaba erditzen dutenean izaten duten batez besteko adina Euskadin



29,8 urte

Europar Batasuneko batez bestekoa 2023an



lehen seme-alaba dutenean emakumeen

= batez besteko adina

egonkor mantentzen da, 32 urteetan, azken hamarkadan Euskadin



≠ nazionalitatearen arabera aldea

alderik handienak amaren nazionalitatearen arabera ikusten dira




Espainiako nazionalitatea

33,4 urte



Atzerriko nazionalitatea

28,7 urte



Lehenengo seme-alaba izatean batez besteko amatasunaren adina Euskadin 32,4 urtekoa da, eta 2015etik egonkor mantendu da. Alderik handienak amaren nazionalitatearen arabera ikusten dira; Espainiako nazionalitatea dutenen artean batez besteko amatasunaren adina 33,4 urtekoa da, batez bestekoaren urte bat gainetik, eta atzerriko nazionalitatea dutenen artean 28,7 urtera arte jaisten da.

Euskadin, emakumeek lehen seme-alaba izatean duten adina EBko batez bestekoa baino handiagoa da.

Eranskin metodologikoa



1. ARLOA. EMANTZIPATUTAKO GAZTEAK

1. Emantzipazio-tasa

Definizioa: Familia-etxetik kanpo bizi diren 18 eta 34 urte bitarteko biztanleen ehunekoa, adin bereko pertsona guztiekiko.

Unitatea: Ehunekoa.

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Eustaten datuetan oinarrituta (BJA).

2. Emantzipazio-nahia

Definizioa: Beren kontura (asko edo dezente) bizi nahiko luketen 18 eta 29 urte bitarteko biztanleen ehunekoa, adin-talde horretako emantzipatu gabeko pertsona guztiekiko.

Unitatea: Ehunekoa.

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia.

3. Emantzipaziorako batez besteko adina

Definizioa: Familia-etxea uzteko batez besteko adina.

15 eta 34 urte bitarteko adin bakoitzeko emantzipazio-tasan oinarritzen da. 15-34 urte bitarteko adin bakoitzerako «irteera-probabilitate» bat kalkulatzen da, adin horri dagokion emantzipazio-tasa ken aurreko adinari dagokion emantzipazio-tasa dena (adibidez, 16 urteko biztanleriaren emantzipazio-tasa ken 15 urteko biztanleriaren emantzipazio-tasa). Abiapuntua 15 urte direnez, 15 urterekin irteteko probabilitatea familia-etxetik kanpo bizi diren 15 urteko pertsonen proportzioaren berdina da.

Unitatea: Adina, urteetan.

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Eustaten datuetan oinarrituta (BJA) Eurostaten metodologiarekin.

1. ARLOA. EMANTZIPATUTAKO GAZTEAK

4. Emantzipaziorako adin erreal eta adin idealaren arteko aldea

Definizioa: Emantzipaziorako batez besteko adin erreala eta 15 eta 29 urte bitartekoek idealtzat jotzen duten adinaren arteko urte-kopuruen aldea (adin erreala ken adin ideala).

Unitatea: Urteak.

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia.

5. Etxebizitzaren edukitze-erregimena

Definizioa: Alokairu-erregimenean edo jabetza-erregimenean bizi diren 18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatuen ehunekoa, adin-talde berean emantzipatuta dauden biztanle guztiekiko.

Unitatea: Ehunekoa.

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailaren Etxebizitza Beharren eta Eskariaren Inkestan (EBEI) oinarrituta.

6. Emantzipatutako gazteen bizikidetza-modua

Definizioa: Bakarrik, bikotekidearekin edo beste pertsona batzuekin bizi diren 18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatuen ehunekoa, adin-talde berean emantzipatuta dauden biztanle guztiekiko.

Unitatea: Ehunekoa.

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailaren Etxebizitza Beharren eta Eskariaren Inkestan (EBEI) oinarrituta.

2. ARLOA. LANERATZEA

7. Goi-mailako hezkuntza titulazio-tasa

Definizioa: Ikasketa tertziarioa duten 25 eta 34 urte bitarteko biztanleen ehunekoa, adin-talde horretako pertsona guztiekiko. Hirugarren mailako hezkuntzatzat hartzen dira ISCED 2011ko 5. mailatik 8.era bitartean sartutako ikasketak, goi-mailako heziketa-zikloak, unibertsitate-graduak, masterrak eta doktoretzak hartzen dituztenak.

Unitatea: Ehunekoa.

Iturria: Eurostat.

8. Jarduera-tasa

Definizioa: Lan egin edo lan egiteko moduan dauden (beraz, bertan kontuan hartzen dira landun eta enplegu-bilaketa aktiboan jarduten duten langabetuak) 16 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa adin-tarte horretako pertsona guztiekiko.

Unitatea: Ehunekoa.

Iturria: Eustat, Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko inkesta (BJA).

9. Okupazio-tasa

Definizioa: Enplegua duten 16 eta 29 urte bitarteko pertsonen ehunekoa, adin-tarte bereko pertsona guztiekiko.

Unitatea: Ehunekoa.

Iturria: Eustat, Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko inkesta (BJA).

2. ARLOA. LANERATZEA

10. Langabezia-tasa

Definizioa: Langabezian dauden 16 eta 29 urte bitarteko pertsonen ehunekoa, adin-tarte bereko pertsona aktibo guztiekiko. Langabezian dauden pertsonak dira, enplegurik ez izan arren, lan egiteko prest eta lana modu aktiboan bilatzen duten pertsonak; hau da, ez dira kontuan hartzen lanik bilatzen ez duten ikasleak edota lanerako ezinduak.

Unitatea: Ehunekoa.

Iturria: Eustat, Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko inkesta (BJA).

11. Okupatutako gazteen jarduera-sektorea

Definizioa: Zerbitzuen sektorean, industrian, eraikuntzan eta lehen sektorean (nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza) lan egiten duten 16 eta 29 urte bitarteko eta 30 eta 34 urte bitarteko gazteen ehunekoa, adin-talde horietako okupatutako pertsona guztiekiko.

Unitatea: Ehunekoa.

Iturria: Eustat, Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko inkesta (BJA).

12. Lanaldi partzialeko enplegu-tasa

Definizioa: Lanaldi partzialean lan egiten dutela aitortzen duten 16 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa, adin bereko gazte okupatu guztiekiko.

Unitatea: Ehunekoa.

Iturria: Eustat, Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko inkesta (BJA).

2. ARLOA. LANERATZEA

13. Aldi baterako enplegu-tasa

Definizioa: Aldi baterako kontratua duten 16 eta 29 urte bitarteko pertsonen ehunekoa, adin bereko soldatapeko guztiekiko.

Unitatea: Ehunekoa.

Iturria: Eustat, Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko inkesta (BJA).

14. Batez besteko hileko soldata garbia

Definizioa: Batez besteko soldata garbia eurotan (hainbanatutako ordainsariekin), 18 eta 34 urte bitarteko gazteen artean.

Unitatea: Euroak.

Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina ondoko inkestetako datuak erabiliz: Estatistika Institutu Nazionalaren Lan Kostuaren Hiruhileko Inkesta, Soldaten Egiturari buruzko Urteroko Inkesta, Bizi-baldintzei buruzko Inkesta, Biztanleria Aktiboaren Inkesta, eta Eustaten Pertsonen eta Familien Errentaren Estatistika.

15. Lana galtzeko edo baldintzak okertzeko arriskua

Definizioa: Urtebeteko epean lana galtzea edo lan-baldintzak okertzea oso edo nahiko litekeena dela uste duten 16 eta 29 urte bitarteko gazte okupatuen ehunekoa.

Adierazlea kalkulatzeko, batera kontuan hartzen dira, alde batetik, gazte landunen ehuneko zenbatek uste duten litekeena dela beren enplegua galtzea urtebeteko epean eta, bestetik, lana galtzeko arriskurik aurreikusten ez duten arren, zenbatek uste duten litekeena dela daukaten lan egoera okertzea.

Unitatea: Ehunekoa.

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Aurrera Begira).

2. ARLOA. LANERATZEA

16. Langabezian dauden gazteen enplegua izateko aurreikuspena

Definizioa: Urtebeteko epean lana aurkitzea aurreikusten duten 15 eta 29 urte bitarteko gazte langabeen ehunekoa.

Unitatea: Ehunekoa.

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Aurrera Begira).

17. Derrigorrez emigratu beharra aurreikustea

Definizioa: Etorkizunean, joan nahi ez badute ere, atzerrira lan egitera emigratu beharko dutela uste duten 15 eta 29 urte bitarteko pertsonen ehunekoa.

Adierazlea kalkulatzeko, atzerrira lanera joateko aukera handia edo nahikoa dutela uste duten pertsonak, eta, aldi berean, gutxi edo batere ez dutela nahi diotenak soilik hartzen dira kontuan.

Unitatea: Ehunekoa.

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Aurrera Begira).

18. Laneratze-tasa Lanbide Heziketako ikasketen ostean

Definizioa: Lanbide Heziketako erdi-mailako edo goi-mailako zikloak bukatu eta 12 hilabeteren ostean lana dutenen ehunekoa, aktibo dauden artean.

Unitatea: Ehunekoa.

Iturria: Lanbide, Ikerketak eta Estatistikak, Laneratzea.

19. Laneratze-tasa unibertsitateko ikasketen ostean

Definizioa: EHU, Deustu eta Mondragon unibertsitateetan graduatu eta hiru urteren ostean lana dutenen ehunekoa, aktibo dauden artean.

Unitatea: Ehunekoa.

Iturria: Lanbide, Ikerketak eta Estatistikak, Laneratzea.

3. ARLOA. ETXEBIZITZA-MERKATUA

20. Hileko batez besteko alokairu-errenta

Definizioa: Euskadin hiruhilekoan/urtean alta emanda eta indarrean dauden etxebizitza kolektiboen alokairu libreko kontratuei lotutako hileko errentaren batez besteko balioa, Eusko Jaurlaritzaren fidantza-erregistrotik lortua.

Unitatea: Euroak.

Iturria: Etxebizitza eta Hiri Agenda Saila, Alokairu-Merkatuaren Estatistika (AME).

21. Hileko batez besteko hipoteka-kuota

Definizioa: Erreferentziako urtean sinatutako hipoteka-kredituei dagozkien hipoteka-kuoten batez besteko balioa.

Unitatea: Euroak.

Iturria: Euskadiko Jabetza Erregistratzaileen eta Erregistroen Elkargoa.

22. Salerosi diren etxebizitzaren batez besteko prezioa

Definizioa: Notario aurrean erregistratutako etxebizitza libreen salerosketen batez besteko prezioa, eskrituran aitortutako zenbatekoaren arabera.

Unitatea: Euroak.

Iturria: Notariotzaren Kontseilu Nagusia.

23. Hipoteka-maileguren interes-tasa

Definizioa: Espainiako kreditu-erakundeetan etxebizitza librea erosteko hiru urtetik gorako hipoteka-maileguren batez besteko interes-tasa.

Unitatea: Ehunekoa.

Iturria: Espainiako Bankua.

4. ARLOA. ETXEBIZITZA-PREMIA

24. Etxebizitza-premia duten gazteak

Definizioa: Emantzipatu gabe dauden, diru-sarrera edo errenta propioak dituzten eta etxebizitza behar duten 18 eta 34 urte bitarteko pertsona kopurua.

Unitatea: Absolutuak.

Iturria: Etxebizitza eta Hiri Agenda Saila, Etxebizitzen Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta (EBEI).

25. Etxebizitza-eskaera kopurua Etxebiden

Definizioa: 18 eta 34 urte bitarteko pertsonen Etxebiden egindako jabetzako edo alokairuko etxebizitza-eskaera kopurua.

Unitatea: Absolutuak.

Iturria: Etxebizitza eta Hiri Agenda Saila, Etxebide.

26. Alokairuko edo jabetzako etxebizitza hobestea

Definizioa: Etorkizuneko etxebizitza batean pentsatuta, alokairuko etxebizitza bat edo jabetzako etxebizitza bat nahiago dutenen ehunekoa, emantzipatu gabe dauden 18 eta 29 urte bitarteko gazteen artean.

Unitatea: Ehunekoa.

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia.

27. Etxebizitza gurasoen udalerri berean nahiago izatea

Definizioa: Emantzipatu gabe dauden eta etxebizitza-premia duten 18 eta 34 urte bitarteko pertsonen artean, etxebizitza hori gurasoen etxebizitza dagoen udalerri edo auzo berean egotea nahiago luketenen ehunekoa.

Unitatea: Ehunekoa.

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailaren Etxebizitza Beharren eta Eskariaren Inkestan (EBEI) oinarrituta.

5. ARLOA. ETXEBIZITZA LIBREA ESKURATZEKO KOSTU TEORIKOA

28. Etxebizitza librea jabetzan hartzeko kostua

Definizioa: Euskadin, 18-34 urte bitarteko gazte soldatadun batek bere hileko soldata garbiaren zer proportzio bideratu beharko lukeen bere kabuz merkatu librean etxebizitza bat erosteko sinatutako hipoteka-maileguaren lehen kuota ordaintzera (merkatu libreko etxebizitzaren batez besteko salneurria kalkulatzeko pisu berriak zein bigarren eskukoak eta familia bakarreko etxebizitzak hartu dira aintzat; notarioen aurrean urte horretan eskrituratutako batez besteko prezioak oinarri hartuta).

Unitatea: Ehunekoa.

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia.

29. Erosteko gehieneko salneurri onargarria

Definizioa: Etxebizitza libre batek –dela berria, dela bigarren eskukoa– izan beharko lukeen salneurria, hori erosteko sinatutako hipotekaren lehen hilerokoak ez lezan 18 eta 34 urte bitarteko soldatapeko gazte baten hileko soldata garbiaren % 30 gainditu.

Unitatea: Euroak.

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia.

30. Etxebizitza librearen salneurriaren eta gehieneko salneurri onargarriaren arteko aldea

Definizioa: Etxebizitza libreen (berri zein bigarren eskukoak) batez besteko salneurriaren eta 18 eta 34 urte bitarteko gazte soldatadun batek, hipotekaren lehenengo kuota ordaintzeko gehienez hileko soldata garbiaren % 30 bideratuko balu, ordaindu ahal izango lukeen salneurri onargarriaren arteko aldea, eurotan azalduta.

Unitatea: Euroak.

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia.

5. ARLOA. ETXEBIZITZA LIBREA ESKURATZEKO KOSTU TEORIKOA

31. Etxebizitza libre bat erosteko behar den diru-sarreraren igoera

Definizioa: Zer ehunekotan igo beharko litzatekeen 18 eta 34 urte bitarteko gazte soldatadun baten hileko soldata garbia, bere kabuz merkatu libreko etxebizitza bat (berria zein bigarren eskukoa) erosi ahal izateko, sinatutako hipotekaren lehenengo hilerokoa ordaintzera gehienez ere bere soldataren % 30 bideratuko balu.

Unitatea: Ehunekoa.

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia.

32. Etxebizitza libre erosteko gehieneko azalera onargarria

Definizioa: Etxebizitza libre batek gehienez izan beharko lukeen azalera eraikia, metro karratutan, 18 eta 34 urte bitarteko gazte soldatadun batek hipoteka-mailegu baten bitartez erosi ahal izateko (merkatu prezioan), hipoteka-maileguaren lehenengo hilerokoa ordaintzera gehienez ere soldata garbiaren % 30 bideratuko balu.

Unitatea: Metro karratu.

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia.

33. Etxebizitza libre alokatzeko kostua

Definizioa: 18 eta 34 urte bitarteko gazte soldatadun batek bere hileko soldata garbiaren zer proportzio bideratu beharko lukeen bere kabuz merkatu libreko etxebizitza baten alokairua ordaintzera (bestelako gastu gehigarriak, hala nola, fidantzak, hornidura-altak, bitartekarien ordainsariak... kontuan izan gabe). Alokairu-errenta hori kalkulatzeko, Eusko Jaurlaritzan jarritako alokatze-kontratuen fidantzen batez besteko zenbatekoak hartzen dira kontuan.

Unitatea: Ehunekoa.

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia.

5. ARLOA. ETXEBIZITZA LIBREA ESKURATZEKO KOSTU TEORIKOA

34. Alokatzeko gehieneko errenta onargarria

Definizioa: Alokairuko etxebizitza libre batek izan beharko lukeen errenta, alokairua ordaintzeak ez lezan 18 eta 34 urte bitarteko gazte soldatadun baten hileko soldata garbiaren % 30 gainditu.

Unitatea: Euroak.

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia.

35. Merkatuko alokairu-errentaren eta gehieneko errenta onargarriaren arteko aldea

Definizioa: Zenbat euroko aldea dagoen alokairuko etxebizitzaren batez besteko alokairu-errentaren (Eusko Jaurlaritzan jarritako alokatze-kontratuen fidantzen batez besteko zenbatekoetatik kalkulatua) eta 18 eta 34 urte bitarteko gazte soldatadun batek, alokairua ordaintzeko gehienez bere hileko soldata garbiaren % 30 bideratuko balu, ordaindu ahal izango lukeen errenta onargarriaren artean.

Unitatea: Euroak.

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia.

36. Alokairua ordaintzeko behar den diru-sarreraren igoera

Definizioa: Zer ehunekotan igo beharko litzatekeen 18-34 urte bitarteko gazte soldatadun baten hileko soldata garbia, merkatu libreko etxebizitza bat alokatzeko gehienez bere hileko soldataren % 30 bideratuko balu. Merkatu libreko alokairu-errenta Eusko Jaurlaritzan jarritako alokatze-kontratuen fidantzen batez besteko zenbatekoetatik abiatuta kalkulatu da.

Unitatea: Ehunekoa.

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia.

6. ARLOA. AZTARNA SOZIALA

37. Etxebizitza gazteen pobrezia errealaaren tasa

Definizioa: Pobrezia errealaaren egoeran dauden 35 urte azpiko erreferentziazko pertsona buru duten etxebizitzetan bizi den biztanleriaren ehunekoa. PGDI metodologiaren arabera, pobrezia errealak kontuan hartzen ditu pobreziaaren dimentsio batean edo bestean (mantentze edo metatzean) ageri diren oinarritzko premien estaldura nahikoa ez izateko arrisku-egoera horiek guztiak ez direnean egoki orekatzen biztanleen eguneroko bizimoduan ongizate-maila minimoa lortzeko, pobrezia bizipenen zerikusirik gabe. Adierazlea osatzean mantentze eta metatzearen adierazleen kokagunea kontuan hartzeaz gain, eskastasunaren beste osagai batzuek hartzen dira. Horietatik gehien nabarmentzen dira azken urtean agertu diren gabezia-egoerak.

Unitatea: Ehunekoa.

Iturria: Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Saila, Pobrezia eta Gizarte Desparekotasunei buruzko Inkesta (PGDI).

38. Etxebizitza gazteen pobrezia-arriskua

Definizioa: PGDI metodologiaren arabera, mantentze-pobrezia arriskuan dauden 35 urte azpiko erreferentziazko pertsona buru duten etxebizitzetan bizi den biztanleriaren ehunekoa. Mantentzearen dimentsioko pobrezia-arriskuko egoeretan kontuan hartzen dira oinarriko edo ezinbesteko diren premiei aurre egiteko ez eskuragarri izatea diru-sarrera ekonomikoa nahikoa, bereziki ohiko elikadura-gastua, etxebizitza, jantzi edota oinetakoetan.

Unitatea: Ehunekoa.

Iturria: Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Saila, Pobrezia eta Gizarte Desparekotasunei buruzko Inkesta (PGDI).

39. Emantzipazioa zapuztuko dela aurreikustea

Definizioa: Adierazle honek emantzipazio-proiektuak urtebeteko epean burutzerik izango ez duten 25 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa jasotzen du, dela familiaren etxetik ateratzea gustatuko litzaiekeenak baina gertagarri ikusten ez dutenak, dela nahi izan gabe, familiaren etxera itzuli beharko dutela uste dutenak.

Unitatea: Ehunekoa.

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Aurrera Begira).

6. ARLOA. AZTARNA SOZIALA

40. Osasun mentala emantzipatzeko aurreikuspenen arabera

Definizioa: 25 eta 29 urte bitarteko gazteek beraien osasun mentalari emandako batez besteko puntuazioa 0-10 eskalan, emantzipatzeko duten aurreikuspenen arabera. Alde batetik, emantzipatzeko aurreikuspenak dituztenak dira gurasoen etxetik atera nahi dutenak eta oso edo nahiko litekeena dela uste dutenak, bai eta emantzipatuta daudenak eta gurasoen etxera itzuli beharrik ikusten ez dutenak ere. Bestetik, emantzipatzeko aurreikuspenik ez dutenek gurasoen etxetik irten nahi dute, baina aukera gutxi edo batere aukerarik ez dute ikusten edo, nahiz eta emantzipatuta egon, gurasoen etxera itzuli beharko dutela uste dute, horretarako gogorik izan gabe.

Unitatea: 0-10 eskala.

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Aurrera Begira).

41. Gurasotasun geroratuaren indizea

Definizioa: Seme-alabarik ez duten baina izatea gustatuko litzaiekeen 15 eta 29 urte bitartekoen artean, egoera hori nahi den adinean gertatzea ez dela oso gertagarria edo ez dela batere gertagarria uste dutenen ehunekoa.

Unitatea: Ehunekoa.

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Aurrera Begira).

42. Batez besteko amatasunaren adina lehenengo seme-alaba izatean

Definizioa: Emakumeek lehen seme-alaba zenbat urterekin izaten duten, batez beste.

Unitatea: Adina, urteetan.

Iturria: Eustat, Jaiotzen Estatistikak.

